

MESOPOTAMIAKO MAMUA

Julen Antxia Loidi

Donostia

Bazen behin Mesopotamia aldean mamu bat Ricky izenekoa. Mamu horrek minutuan hirurogei gizon edo emakume izutzen zituen gutxi gorabehera. Rickyk bazuen bere familia; bere ama, Zert; bere aita, Loze; eta bere anaia, Gus. Gusek oraindik ez zekien jendea ikaratzten eta bere ama, Gusez arduratzen zenez, Ricky bere aitarekin joaten zen egunero jendea beldurtzera.

Aurreko urtean bezala, Ricky, Gus eta bere gurasoak “Mamuen Bilerak”-ra joan ziren. Han, Gus segituan aspertu zen, izan ere lehenengo urtea zen hara joaten zena, aurreko urtean ez zelako joan. Bilerak, normalean ordubete irauten zuen; baina aurtengoak bi ordu iraun zuen. Ricky ere aspertuta ateratu zen bileratik. Hala ere egun bat zuten ahalik eta pertsona gehien izutzeko, eta sari bat irabazteko. Ricky etxera itzuli eta berehala afaldu gabe lotaratu zen.

Hurrengo egunean, Ricky oso goiz esnatu zen, gosalduta eta berehala etxetik irteteko. Bakarrik joan zen, bere aitak ez zuen joan nahi eta.

Metroa hurrengo geltokira iristean, denak korrika irten ziren izu-laborriz beterik, asko eskuan zutena lurrera botata. Baina Parisen ere morroi arraro bat zegoen metroko bagoi batean, eta metroan gelditu zen bakarra izan zen; ikaratu ez zen bakarra zen.

Rickyk Tokion jarraitzen zuen, eta eraikin altu batean sartu zen, bertako denak eraikinetik irtenaraziz; batzuk biluzik irteten ziren. Barre apur bat egiten zuen mamuak: gizonak xaboiz beteta irteten ikustean, emakumeak biluzik irteten ikustean, gizon eta emakumeak oinutsik ikustean...

Rickyk antzeko beste eraikin batzuetan ere gauza bera egin zuen: bulegoetan sartu eta denak kanporatu, metro geltokietan izutzeak egin, metroan sartu eta bagoietako jendea beldurtu... Horrela bederatziak arte; hala ere, galdera batzuk bueltaka zituen buruan: “Nork kontatzen du ikaratutako jende kopurua?” “Nor da jada hamar aldiz ikusi dudana morroi arraro izu-ezina?”... Galdera asko egiten zizkion bere buruari, gainera Radjes eta Hulj ere gogoan zituen, eta nahiz eta saria zer zen jakin ez, lortzeko irrikitan zegoen.

New Yorketik Washingtonera joan zen Hulj, New Yorken egin beharrekoa eginda zuelakoan. Berak ere Rickyk egiten zituen galdera berak egiten zituen. Washingtonen ere, metroan buelta batzuk egin zituen Huljek. Washingtoneko metro batean zegoela, jendea beldurtzen, bere familiarkoak ikusi zituen haiek ere gauza bera egiten; horrela, elkarrekin izutu zituzten ingurukoak, eta Hulj, jada ez zen arduratzen morroi arraroaz.

Huljek bere familiarekin jarraitzen zuen bitartean, Radjes Pariseko metroan buelta asko emanda zegoen, eta Eiffel dorrera igotzea pentsatu zuen. Metroen mapan begiratu, eta “Tour Eiffel” jartzen zuen geltokirantz abiatu zen, jendea beldurtuz.

Eiffel dorrera igo zen, ikusezin bihurturik. Inork ez zuen ezer sumatzen, eta tarteka barregura sartzen zitzaion. “Urte sasoi honetan, Eiffel dorrean, jende ugari ibiltzen da, gehinak turistak; bai metroan eta bai hemen” pentsatu zuen. Hala ere berak ere jakin-mina zuen, morroi arraro hori nor zen, zertan ari zen...

Ricky ere jendea ikaratzen ari zen, Tokioko metro geltokietan, tren geltokietan, eta eraikin altuetan sartuz. Huljez horrelakoak pentsatzen hasten zen askotan: agian nik baino pertsona gehiago izutu ditu! “Beno” esan, eta zerbait jatera joan zen aurkitu zuen lehenengo jatetxera. Izan ere gosez zegoen, hainbeste pertsona beldurtu ondoren... Bertako pertsona guztiek hanka egin zuten jatetxetik, mamua bertan sartzen ikustean. Batek izan ezik...

“Nola ez, morroi arraroa” pentsatu zuen “beti ni joaten naizen lekuetan egoten da”. Eta gero, ihes egindako pertsonak utzitako jana jaten hasi zen. Txoko batean berari begira morroi arraroa zegoen. Jaten zuen bitartean Radjesez gogoratu zuen. “Nola ote dabil Radjes?” pentsatzen zuen. Gero, jatetxetik irten, eta jendea ikaratzen jarraitu zuen.

Parisen, Radjes Eiffel dorrearen puntan zegoen, bertakoak izutzen. Gehienak, igogailuetara joaten

ziren, azkar-azkar, beldurturik; beste batzuk, igogailuak beteta zeudelako, larrialdietako eskaileretatik jaisten ziren. Radjes, pozik zegoen. Saria berak irabaziko zuela pentsatzen zuen; baina hala ere Rickyz ere pentsatzen zuen, bere lagunik onena zelako. Hala ere, jendea izutzen jarraitu zuen, saria irabazi nahian. Baina ez zen bera sari hori lortu nahi zuen bakarra; ez horixe, Hulj ere tartean zegoen, eta Raystong, Hulj-en laguna. “Beno” pentsatu zuen Radjesek, eta Eiffel dorrearen puntan eseri eta Parisi begira geratu zen.

Washingtonen zen Hulj, bere familiakoekin, eta nekaturik zeuden. Jatetxe batean sartu ziren jendea izutu eta gero, eta jateari ekin zioten. Barrez zeuden, beldurtutako pertsoneri buruz hitz egiten, onenak zirela pentsatuz.

–Arratsaldeko hirurak dira Mesopotamian; eta lehiaketa Mesopotamian gaueko hamabiak direnean bukatzen da –esan zuen Huljek, eta jatetxea zegoenean utzi, eta jendea ikaratzera joan ziren.

Bitartean Ricky gauza batekin konturatu zen: aurreko astean ordu aldaketa izan zela eta laurak zirela. Baina ez zuen inori esatea pentsatu, baze-kielako Hulj tentel samarra zela, eta ez zela ezertaz ohartuko. Horrela, izutzeak egiten ibili ostean, erlojuari berriro begiratu zion. Bostak ziren jada!

Radjes Parisen zegoen, eta Eiffel dorretik jaitsi eta Parisko kaleetan sartu zen. Jendearen oihuak entzuten zituen, eta berriz morroi arraro hartaz gogoratu zen. Izan ere, bertan zegoen Montmatren; espaloian zutik, geldi-geldi berari begira. Hala

ere jendea beldurtzen jarraitu zuen, eta zazpiak laurden gutxi zirenean, Rickyri deitu zion, eta Rickyk gogorazi zion ordu aldaketarena.

Zazpitan Hulji azkenean gogoratu zitzaion ordu aldaketarena. Orduan ohartu zen ez zirela seiak eta gurasoekin batera izutzen jarraitu zuen. Gero, Hulj eta Ricky ez zirelako elkarren lagunak, haxe esan zien gurasoei:

–Ba! Ricky ziur ez zela ohartu ere egingo, baina guk behintzat ez diogu ezer esango, kar-kar-kar!

Bitartean, Tokion, Ricky “MERKEALDIAK” jartzzen zuen eraikin batera sartu zen (kartela japonieraz zegoen, jakina). Bertako jendea beldurtuta, ziur zegoen bere markagailuak gora egingo zuela, eta pozik jarri zen.

Radjes eta Hulj ere, azkeneko momentuak aprobetxaturik, izualdi itzelak eginik itzuli ziren Mesopotamiara. Gaueko hamabietan sari banaketarako mamu guztiak erabat urduri zeuden, denek jaso nahi baitzuten saria (inork ez zekien zer zen).

Hamabiak eta bost zirenean, sariak banatu behar zituen mamua sartu zen, paper batzuk eskuetan zituela. Hasteko, aurkezpena egin zuen, eta haxe esan zuen:

–Lehenengoak sari berezia eramango du; bigarrenak beste sari berezi bat; eta hirugarrenak mila bretel¹. Gainera, beste hogeit hamar sari berezi izango dira beste horrenbeste parte hartzaileentzat: bostehuna brete”. Ondoren sari banaketa hasi zen:

¹ Mamuen txanpona.

–Hirugarren postuan... –esan zuen– mila brete-
len jabea... –jarraitu zuen mamuak urduri jarriz–
Huljen familia!!

Hulj ez zegoen hain pozik, lehenengo saria jaso
nahi zuelako, baina bere gurasoak poz-pozik zeu-
den.

–Bigarreanean... –jarraitu zuen, eta mamuak gero
eta urduriago zeuden– Radjes!!

Radjes oso pozik jarri zen.

–Eta lehenengoa... –mamuak oso urduri zeu-
den– jende gehien izutu duena... –mamuak izerdi-
tan zeuden– Ricky!

Ricky izugarri poztu zen.

Horrela bada, Hulj eta bere familia, Radjes eta
Ricky eszenatokira irten ziren, eta beste hogeitazero
izan ziren. Dirua txeketan eman zen. Radjesek bere
saria jaso zuen: bost mila bretel eta teletransporta-
gailu bat beretzat; eta Rickyk hamar mila bretel,
auto deskapotable bat (teletransportatzen dena),
eta txartel berezi bat hurrengo bost urteetan,
Mamu merkatal zentroan egindako erosketetan
ehuneko berrogeita hamarreko deskontua izateko.

Ricky eta Radjes izan ziren sari banaketatik poz-
pozik irten ziren bakarrak; beste batzuk, nahiko
pozik, Rayton, adibidez, (aipatutako 20en artean
zegoen); beste batzuk, ez hain pozik (Hulj, adibi-
dez); eta beste batzuk triste, saririk ez irabazteaga-
tik. Hala ere, bazeuden batzuk, nahiz eta saririk ez
irabazi, pozik (edo nahiko pozik) zeudenak.

Sari banaketa gauzatu zen eraikinetik irten ondoren, kanpoan, nonbait ikusita zituzten mamu batzuk zeuden, nahiko arraro jantzirik. Ricky izan zen, buruari eragin ondoren, mamu horiek nortzuk ziren antzematen lehena. Radjesi esan zion:

–Begira Radjes! Ez al zaizkizu ezagunak egiten mamu horiek?

–Ba... uste dut epaimahaikoak direla, ezta? –erantzun zuen Radjese, lasai-lasai.

–Baina Radjes, zuk ez dituzu ikusi morroi arraro batzuk? –esan zion Rickyk, Radjes nortzuk ziren ohartu zedin.

–Aaaaaaaaaaaaaaaaaaaaa!! –Radjes zerbaitetaz konturatzen da– Nik Parisen eta zuk Tokion ikusi ditugun morroi arraroak!!

Azkenean, dudak argituta itzuli ziren Radjes eta Ricky etxera. Gero, gauean, elkarrekin afaldu zuten, ospatzeko.

Hurrengo egunean, gutun bat jaso zuten denek, lehiaketako lehenengo hirurak eta beste hogeiak zeintzuk ziren eta zenbat pertsona ikaratu zituzten ikusteko taula bat, eta behean, norberak zenbat izutu dituen ere jakiteko beste taulatxo bat.

Horrela bada, munduko hiri edo herriak nahiko nahasturik gelditu ziren, eta mamuak poz-pez geratu ziren egindako lanarengatik. Eta izualdiaren eguna egun garrantzitsu bat izan zen Mamuherrin, eta urtero-urtero ospatzen da orain, baina sari ezberdinak banatuz, sari misteriotsuak.